

Terenzioren *Eunuchus* (549-1094) antzezlanaren euskarazko itzulpena eta oharrak

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua
2019-2020 ikasturtea

Ikaslea: Inari Plazaola Zabala
Tutorea: Gidor Bilbao Telletxea
Saila: Ikasketa Klasikoak

Aurkibidea

1. Terentzio eta <i>Eunukoa</i>	2
2. Itzulpen-prozesua.....	4
3. Itzulpen-arazoak.....	5
3.1. Erreferentzia kulturalak.....	5
3.2. Hitanoaren erabilera.....	7
3.3 Esamoldeak eta esaldiak	19
3.4 Lexikoa.....	20
4. Itzulpena.....	23
5. Bibliografia.....	58

1. Terentzio eta *Eunukoa*

Publius Terentius Afer, Terentzio izenaz ezagunagoa, Erromako Errepublika garaiko komediagile bat izan zen. Kartagon jaio zen k.a. 185. urtean, eta Greziako Estinfalo hirian hil zen k.a. 159. urtean.

Terentius Lucanus senatari erromatarraren esklaboa izan zela diote, baina honek Terentzioren bizkortasuna ikusita, askatasuna eman zion, eta baita Erromako nobleziaren giroan sartzeko aukera ere. Horrez gain, senatariaren izena ere hartu zuen.

Bere bizitzan zehar sei obra idatzi zituen, Greziako komediagileen obretan oinarrituak; batez ere Menandro¹ eta Karistoko Apolodoro² antzerkigileen obretan:

- *Andria* (k.a. 165): Menandroren *Samia* eta *Perinthia* obretan dago oinarrituta, eta autorearen lehenengo obra izan zen.
- *Hecyra* (k.a. 165): Karistoko Apolodororen *Ἐκυρά* ('amaginarreba') obran dago oinarrituta. Terentzioren obra xelebreenetariko bat da, ezin izan baitzuen hirugarren saiakerara arte antzeztu.
- *Heauton Timoroumenos* (k.a. 163): Menandroren izen bereko obran dago oinarrituta. Hala ere, ez dago argi Terentziok Menandroren obra inspiraziotzat hartu zuen, edo itzulpen zuzena egin zuen.
- *Eunuchus* (k.a. 161)³: Menandroren *Eunuchus* eta *Colax* obretan dago inspiratuta. Terentzioren antzezlan arrakastatsuen izan zen.

¹ Menandro (k.a. 342- k.a. 291) antzerkigile greziar bat izan zen, komedia berriko autorerik adierazgarrienetako bat.

² Karistoko Apolodoro (k.a. III. mendea) antzerkigile greziar bat izan zen, komedia berriko autorerik adierazgarrienetako bat.

³ Teoria ugari egon dira *Eunukoaren* kronologiaren inguruan. Nik hautatuko data eta Terentzioren obren sailkapen kronologikoa Lisardo Rubio Bartzelonako Unibertsitateko katedratikoaren arabera da.

- *Phormio* (k.a. 161): Karistoko Apolodororen *Epidikazomenos* obran dago oinarrituta. Egiturari dagokionez, erromatar garaiko komediarik onenetariko bat dela diote batzuek.
- *Adelphoe* (k.a 160): Menandroren obra batean dago oinarrituta. Horrez gain, obraren hitzaurrean aitortzen du, Diphilus-en⁴ *Synapothnescontes* antzezlaneko agerraldi bat hartu zuela inspiraziotzat. Askoren iritziz, Terentzioren maisulan bat da obra.

Eunukoa Terentzioren obrarik arrakastatsuen izan zen; estreinatu zen garaian oso ospetsua bilakatzeaz gain, autore hil eta geroko mendeetan, hainbat autore ospetsuk horren pasarteak aipatu zituzten beren obretan (hala nola Horaziok, Zizeronek, San Agustinek...). Literatura modernoan ere *Eunukoa* inspirazio iturri izan da idazle askorentzat eta, ondorioz, antzezlanaren egokitzapen moderno asko egon dira azken mendeotan. Besteak beste, Goethe idazle alemaniarren zuzendaritzapean, *Eunukoa* eta Terentzioren beste hainbat obra antzeztu ziren Alemanian.

Alabaina, eztabaida handia egon da *Eunukoaren* kronologiaren inguruan. Izan ere, eskuizkribu askotan Terentzioren bigarren obra dela ageri da. Nolanahi ere, Donatoren⁵ arabera, idazlearen sei obretatik hirugarrena da. Historian zehar, beste aditu askok ere *Eunukoaren* sortze-datari buruzko hainbat teoria egin dituzte (Del Col, 2008). Ni, ordea, Lisardo Rubio Bartzelonako Unibertsitateko katedradunaren teoria edo proposamenean oinarrituko naiz. Horren arabera, «Laburbilduz, magistraturei erreparatuz, eta hitzaurreen kronologia kontuan hartuta, *Eunukoa* Terentzioren laugarren komedia izango litzateke, *Andria* (k.a 166), *Hecyra* (k.a 165) eta *Heautontimoroumenos* (k.a. 163) obren ondorengoak» (Rubio, 1991: 102).

Argumentuari dagokionez, Tais da istorioaren protagonista, kortesana gazte bat. Bi gizon daude harekin maiteminduta: Fedria, gizon gazte noble bat, eta Trason, militar harropuz bat. Lehenengoak eunuko zahar eta itsusi bat oparitzen dio bere maitasuna erakutsi nahian; bigarrenak, ordea, Panfila izeneko esklabo gazte bat.

⁴ Diphilus (K.a 360/350-K.a. III. mendearen hasiera) antzerkigile greziar bat izan zen. Menandro, Karistoko Apolodoro eta Filemon autoreekin batera, komedia berriko erreferente handienetariko bat izan zen.

⁵ Elio Donato (IV. mendea) latineko gramatikari bat izan zen, besteak beste Terentzioren obrak komentatu zituen.

Ondoren, Fedriaren anaia Kereak neskata gaztea ikusten duenean, guztiz maitemintzen da harekin. Beraz, anaiak Taisi oparitutako eunukoaren lekuan jarrita eta haren plantak eginda, kortesanaren etxera sartzen da eta Panfila bortxatzen du. Alabaina, gertaerek norabide guztiz desberdina hartzen dute bat-batean, izan ere, Panfila ez da esklaboa, neska askea baizik; gainera, Taisek haren guraso noblei bueltatu nahi die neskata.

Bukatzeko, izenburuaren esanahia azaltzea beharrezkoa dela deritzot. *Eunuchus*-ek (*Eunukoa* euskaraz) obrako gertakari guztien eragileari egiten dio erreferentzia, Fedriak Taisi oparitzen dion eunukoari, gero Kereak Panfila bortxatzeko erabiltzen duen estalkiari, alegia. Funtsean, eunuko bat zikiratutako gizon bati deitzeko erabiltzen den termino bat da. Nolanahi ere, termino horren esanahia arinki aldatu izan da historian zehar eta herrialdeen arabera. Adibidez, Erromatar inperioan, eunukotzat jotzen zituzten homosexual eta transexualak. Maila baxuagoko jendea izan ohi zen.

2. Itzulpen-prozesua

Hasteko, azpimarratzekoa iruditzen zait *Eunukoaren* bertsiio originala latinez idatzita dagoela esatea. Nik latinezko ezagutzarik ez daukadanez, zubi-hizkuntza bat erabili dut: gaztelera. Beraz, *Eunukoaren* hiru itzulpen desberdin eduki ditut kontuan, itzultzen ari nintzen bitartean: Gonzalo Fontana Elbojena (Fontana, 2008), Lisardo Rubio Fernándezena (Rubio, 1991) eta Andrés Pociña eta Aurora Lópezena (Pociña & López, 2009).

Nolanahi ere, Gonzalo Fontanaren itzulpena izan da nire oinarri nagusia; estilo edo egitura aldetik hiruren artean desberdintasunen bat egotekotan, Fontanarena jarraitzea erabaki dut, hala nola lerroen zenbaketa. Horietaz gain, ingelesezko bertsiio bat ere kontuan hartu dut kontsulta puntualak egiteko, John Barsby-rena (Barsby, 2001), alegia.

Oso aberasgarria iruditu zait lau bertsiio desberdin eduki izana itzulpen prozesuan. Izan ere, ikuspegi oso bestelakoak eduki ahal izan ditudanez kontuan, testu originala hobeto eta sakonago ulertu ahal izan dut. Ondorioz, itzulpen osoago bat gelditu zaidala esango nuke, bere baitan lau ikuspuntu desberdin biltzen dituena. Horrez gain, aipatu beharra daukat ez

dudala bertsio originalera jotzeko beharrik izan, hain zuzen lan honen tutoreak zaindu duelako originaletik desbideraketa handirik ez izatea.

Gainera, nire itzulpenean pertsonaia batzuek hika egingo zutela erabaki nuen. Horretarako, hitanoaren erabileraren inguruko zenbait artikulua eta dokumentu eduki ditut kontuan. Alde batetik, Xabier Alberdiren artikulua bat, hitanoa noiz eta nork erabili behar duen jakiteko (Alberdi, 1994). Bestetik, aditz moldeak nolakoak diren eta nola erabili behar diren jakiteko, Euskaltzaindiaren dokumentu bat erabili dut: *14. araua: adizki alokutiboak (hikako moldea)*.

Halaber, aipatu nahi dut *Eunukoaren* latinezko bertsioa bertso-lerrotan idatzita dagoen arren, nik prosan idatzi dudala. Funtsean, oinarritzat hartu ditudan bertsioak horrela itzuliak izan direlako egin dut hautu hori, eta baita buruan eduki dudana irakurlearentzat irakurterrazago izango zelakoan.

Horren harira, funtsezkoa iruditu zitzaidan hasieratik finkatzea nor izango zen testuaren irakurlea, izan ere, irakurleak asko baldintzatzen du idazteko era. Horregatik, testu hau kultura greko-latindarrak gutxi dakiten irakurleentzat zuzendua egongo zela erabaki nuen, tutorearen aholkuaren haritik.

3. Itzulpen-arazoak

3.1 Erreferentzia kulturalak

Eunukoa duela milaka urte idatzitako obra bat da, k.a. 161. urtean hain zuzen ere; hortaz, testua garai hartako kultura-erreferentzietan dago josita. Nire itzulpena mundu greko-latindarrak gutxi dakiten pertsonetarako dago zuzenduta, beraz, funtsezkoa iruditu zait oin-oharren bidez irakurleari istorioaren ulermenean lagunduko dioten azalpenak txertatzea.

Gainera, esan beharra daukat, oinarritzat hartu ditudan zubi-testuetan ere, hots, Gonzalo Fontana Elbojen (Fontana, 2008), Lisardo Rubio Fernándezen (Rubio, 1991) eta Andrés

Pociña eta Aurora Lópezen (Pociña & López, 2009) itzulpenetan, oin-ohar batzuk ageri zirela. Kasu horietan, hiru testuen oin-oharrak kontuan hartuta egokitzapen bat egin dut nire itzulpenean. Hala ere, beste kasu batzuetan kultura-erreferentzia batzuek ez zeukaten azalpenik eta, beraz, beharrezkoa iruditu zaidanean, nik gehitu ditut.

Askotarikoak dira azalpena txertatu behar izan diegan izen, termino, esamolde... horiek, eta hemen multzoetan banatzen saiatu naiz:

- Esaldiak eta esamoldeak: «Azken mailan maitatzen badiat ere, ezereza baino gehiago duk», «Zeres eta Liber gabe, Venus izotzezkoa da» eta «Arratoi baten antzera, nire arrastoengatik harrapatu naitek!».
- Garaiko pertsonak, pertsonaiak eta taldeak: eunukoa, libertoa eta Pirro.
- Armada: zenturioia, manipulua eta atzeguardia.
- Objektuak: inplubioa, soingainekoa, nortasun-agirien saskitxoa eta habaila.
- Mitoak: «Danaeren magalean urrezko euria hustu zuenean», «Aspaldi nabil arroka horri bueltak ematen» eta «Nola izango nauk ni Herkules baino gutxiago, Onfaleren morroia izan zenean».
- Ohiturak: «Neskatxa hori oturuntza batean», «Adulteroei egiten dietenarekin», ezagutze-ekitaldia eta landa aldea.

Oro har, uste dut kultur-erreferentzia horiek argitzea oso lagungarria izango dela irakurlearentzat, eta antzezlanak sakonago eta osotasunean ulertzeko oso baliagarriak izango zaizkiola.

3.2 Hitanoaren erabilera

Eunukoa antzezlanaren denez, elkarrizketak dira istorioa kontatzeko baliabide bakarra. Pertsonen arteko kontaktu hori naturalagoa eta errealagoa izan zedin, tutoreak hitanoa erabiltzeko aukera aztertzeke proposatu zidan.

Hala ere, hitanoaren erabilera oso baldintzatuta dago hainbat faktorerengatik, hala nola testuingurua, hizlariak, egoera... Horregatik, irizpide zehatz batzuk finkatu behar izan nituen itzultzen hasi baino lehenago, noiz erabili eta noiz ez jakiteko. Horretarako, *Euskaltzaindiaren 14.araua: adizki alokutiboak (hikako moldeak)* dokumentuan eta Xabier Alberdiren artikuluan batean oinarritu nintzen, zeinak hitanoa noiz erabili behar den azaltzen duen (Alberdi, 1994). Oro har, Alberdiren irizpide horiek jarraitu ditut hika noiz erabili jakiteko; nolana ere, aurrerago azalduko ditudan moldaketa batzuk egin ditut. Honako hauek dira dokumentu horretan azaltzen diren kontuan hartu beharreko aldagaiak:

1. Gaia (hizketagaia)
2. Hizketaldiaren testuingurua
3. Adina
4. Belaunaldia
5. Sexua
6. Senidetasun-maila
7. Dialektoa
8. Talde-kidetasuna
9. Aginpidea (legal edo politikoa), eskubide eta betebeharren gaineko aginpidea
10. Sentipenezko elkartasuna, elkartasun psikologikoa (hau da, sinpatia, antipatia, begikotasuna, elkarrenganako ezinikusia, e.a.)

Pertsonaia bakoitzak norekin eta zergatik egiten duen hika ageri da beheko tauletan. Gainera, Alberdiren aldagai horiei «maila soziala» gehitu diet, antzezlan honetan oso faktore garrantzitsua dela uste baitut.

Taula 1: Kerea, mutil gazte noble bat.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Kerea	Antifon	Bai	Hizketaldiaren testuingurua eta maila soziala: lagunen arteko elkarrizketa bat da. Gainera, biak dira gazteak eta nobleak.
Kerea	Tais	Bai	Hizketaldiaren testuingurua eta maila soziala: Lagunarteko giroa da, maila bereko bi pertsonen artean.
Kerea	Pitias	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Pitias bere lagun Taisen neskamea da.
Kerea	Parmenon	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Parmenon Kerearen aitaren morroia da.
Kerea	Gnaton	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Kerea maila altuagoko gizona da, eta hika unilateralki egiteak hori islatzen du.
Kerea	Fedria	Bai	Senidetasun-maila eta adina: anaiak dira eta adin antzekoa daukate.

Taula 2: Antifon, Kerearen laguna.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Antifon	Kerea	Bai	Hizketaldiaren testuingurua eta maila soziala: lagunen arteko elkarrizketa bat da. Gainera, biak dira gazteak eta nobleak.

Taula 3: Dorias, Taisen neskamea.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Dorias	Pitias	Bai	Aginpidea eta maila soziala: biak dira neskameak, maila sozial berekoak. Haien artean hika egiteak maila berekoak direla erakusten du.
Dorias	Fedria	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Fedria bere ugazaba-andrearen laguna da, gainera, maila sozial altuagokoa.

Taula 4: Fedria, mutil gazte noble bat.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Fedria	Pitias	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Pitias Fedriaren lagun baten neskamea da, gainera, maila sozial baxuagokoa da.
Fedria	Doro	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Fedriak Doro erosi zuen, eta posesio horrek nagusitasuna ematen dio.
Fedria	Kerea	Bai	Senidetasun-maila eta adina: anaiak dira eta adin antzekoa daukate.
Fedria	Gnaton	Bai	Maila soziala: Gnaton parasito bat da, eta Fedria gizon noble bat.

Taula 5: Pitias, Taisen neskamea.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Pitias	Dorias	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Biak dira neskameak, maila sozial berekoak. Haien artean hika egiteak maila berekoak direla erakusten du.
Pitias	Fedria	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Fedria maila sozial altuagokoa da, Pitiasen ugazaba-andrearen laguna.
Pitias	Doro	Bai	Maila soziala: Pitias neskamea den arren, eunukoak horiek baina maila sozial baxuagokoak ziren.
Pitias	Kremes	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Kremes Pitiasen ugazaba-andrearen laguna da, hortaz, maila sozial altuagokoa.
Pitias	Tais	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Tais Pitiasen ugazaba-andrea da.
Pitias	Kerea	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Kerea Pitiasen ugazaba-andrearen laguna da, hortaz, maila sozial altuagokoa.
Pitias	Parmenon	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Biak dira morroiak.

Taula 6: Doro, Fedriak Taisi oparitutako eunukoa.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Doro	Fedria	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Fedriak Doro erosi zuen, beraz, eunukoaren jabea da.

Taula 7: Kremes, gazte noble bat, Panfilaren neba.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Kremes	Pitias	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Pitias Kremesen lagun baten neskamea da.
Kremes	Tais	Bai	Hizketaldiaren testuingurua eta maila soziala: Maila bereko lagunaren arteko elkarrizketa bat da.
Kremes	Trason	Ez	Hizketaldiaren testuingurua: Leihakideak dira.
Kremes	Gnaton	Bai	Maila soziala: Kremes gizon noble bat da, eta Gnaton parasito bat.
Kremes	Sofrona	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Kremes gazte noble bat da, eta Sofronak haren familiarentzat egiten zuen lan.

Taula 8: Tais, kortesana bat.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Tais	Pitias	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Tais Pitiasen ugazaba-andrea da.
Tais	Kremes	Bai	Hizketaldiaren testuingurua eta maila soziala: Lagunarteko giroa da, maila bereko bi pertsonen artekoa.
Tais	Trason	Bai	Maila soziala: Maila bereko pertsonak dira.
Tais	Gnaton	Bai	Maila soziala eta aginpidea: Gnaton Taisen lagunaren parasittoa da.
Tais	Kerea	Bai	Hizketaldiaren testuingurua eta maila soziala: Lagunarteko giroa da, maila bereko bi pertsonen artean.

Taula 9: Trason, militar harroputz bat.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Trason	Gnaton	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Gnaton Trasonen parasitoda da.
Trason	Sanga	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Sanga Trasonen sukaldaria da.
Trason	Tais	Ez	Hizketaldiaren testuingurua: Maila bereko bi pertsona diren arren, Trason Taisekin maiteminduta dago, errespetua erakusteko zuka egiten dio.
Trason	Kremes	Ez	Hizketaldiaren testuingurua: leihakideak dira.
Trason	Fedria	Ez	Hizketaldiaren testuingurua: leihakideak dira.

Taula 10: Gnaton, Trasonen parasittoa.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Gnaton	Trason	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Gnaton Trasonen parasittoa da.
Gnaton	Kremes	Ez	Maila sozial : Kremes noblea da, eta Gnaton parasittoa bat.
Gnaton	Fedria	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Fedria noblea da, eta Gnaton parasittoa bat.
Gnaton	Kerea	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Kerea noblea da, eta Gnaton parasittoa bat.

Taula 11: Sanga, Trasonen sukaldaria.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Sanga	Trason	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Sanga Trasonen sukaldaria da.

Taula 12: Sofrona, Panfila eta Kremesen inudea.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Sofrona	Kremes	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Kremes gazte noble bat da, eta Sofronak haren familiarentzat egiten zuen lan.

Taula 13: Parmenon, Fedria eta Kerearen aitaren morroia.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Parmenon	Pitias	Bai	Aginpidea eta maila soziala: biak dira maila bereko morroiak.
Parmenon	Agurea	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Agurea Parmenonen ugazaba-jauna da.
Parmenon	Kerea	Ez	Aginpidea eta maila soziala: Kerea Parmenonen ugazaba-jaunaren semea da.

Taula 14: Agurea, Fedria eta Kerearen aita.

NORK	NORI	HITANOA	ARRAZOIA
Agurea	Parmenon	Bai	Aginpidea eta maila soziala: Agurea Parmenonen ugazaba-jauna da.

Lehen aipatu dudan bezala, nahiz eta Alberdik aldagai horiek kontuan hartu hika noiz erabili jakiteko, nik batzuk baztertu egin ditut, adibidez, sexuarena. Oro har, ez da oso ohikoa gizonak emakumei hika egitea; horrela dio Alberdik: «Sexua, adinarekin batera, aldagai oinarrizkoa da. Beti ere, errazago gertatuko da simetria sexu berekoen artean, sexu desberdinekoen artean baino. Gainera, oro har, sexu berekoak izanda, gehiago egiten da hika gizonen artean, emakumeen artean baino. Asimetria gertatuz gero, aiseago gertatzen da emakumearen alde (hots, emakumeak hika gizonari eta beronek zuka itzuli emakumeari). Euskal Herriko herri batzuetan (uste baino gutxiagotan!; adibidez, Aulestian eta Azpeitian) sexu-diferentzia hika aritzeko eragozpena ez bada ere, hainbat herritan –eta ez Bizkaieraren eremukoetan bakarrik– benetako "tabuak" daude gai honen inguruan» (1993:436).

Nolanahi ere, emakumeari hika ez egitea oso baztertzaila iruditzen zait. Izan ere, maila berean dauden bi mintzakidek hika egiten diote elkarri, eta baita elkarrizketan maila altuagoan dagoenak ere, baina inoiz ez maila baxuagoan dagoenak. Ondorioz, emakumeari hika ez egitea maila baxuagoan egotearekin lotuta dagoela iruditu zitzaidan. Nire itzulpenean parekidetasuna aldarrikatu nahi izan dut ahal izan dudan heinean, horregatik, ez dut sexua irizpidetzat hartu hika noiz erabili erabakitzeke.

Horrez gain, hainbat bakarriketa ageri dira testuan zehar, bai gizonenak eta baita emakumeenak ere; bi generoen kasuan toka erabili ohi da, eta ez noka. Izan ere, noka buru markatua da eta toka markatugabea (Alberdi, 1993). Beste era batera esanda, emakumea alegiazko elkarrizketa bat ari bada edukitzen, inori erreferentziarik egin gabe, ezta bere buruari ere, toka erabiltzen omen da. Hala ere, Alberdik dioenaren aurkara, nik noka erabiltzea erabaki dut. Alde batetik, errealitate bat da hika galtzen ari dela, eta are gehiago

noka; horregatik, galtze prozesu hori saihesteko, nire aletxoa ekarri nahi izan dut, eta ahal izan dudan heinean noka ahalik eta gehien erabiltzen saiatu naiz.

Bestetik, nahiz eta askok uste duten euskara inklusiboa eta parekidea dela, ez da guztiz egia. Adibidez, Onintza Legorburuk (2018: 39) honela dio: «Baina euskara ez da hizkuntza erromanikoa, hau da, euskaraz forma maskulinoak ez du forma orokorraren lekua betetzen [...]. Hala nola, euskarak genero gramatikalik ez duen heinean, urteetan pentsatu izan da ez duela generorik, are gehiago, sexismorik sortzen edota barnebiltzen ez duela ere pentsatu izan da».

Nolanahi ere, euskarak genero gramatikalik ez izan arren, sexua markatzeko hainbat era daude, hala nola terminoen jatorrian, terminoek dauzkaten konnotazioetan, edo generoa markatuta daukaten hitzetan. Adibidez, asko aztertu izan dira *gizaki* edo *gizarte*, biak *gizon* hitzetik datozela esaten baitute; marka maskulino hori kentzeko asmotan, beste termino batzuk proposatu izan dira, esaterako, *gizarte* beharrean, *jendarte*. Horrez gain, termino femenino batzuei ematen zaien konnotazio negatiboa ere oso baztertzaila da, adibidez, *atso* eta *agure* hitzek, biek egiten diete erreferentzia adineko pertsona bati. Nolanahi ere, *atso* hitzak, emakumeari erreferentzia egiteko erabiltzen denak, konnotazio negatiboa du (Legorburu, 2018).

Halaber, badira sexua txertatuta daukaten hitzak; esaterako, gizonari erreferentzia egiteko *errege* esaten dugu, eta emakumeari *erregina* esaten diogu. Bereizketa hori etengabe egiten da euskarari, eta baita beste hizkuntzetan ere: neba/arreba, printze/printzesa, sorgina/aztia...

Gauzak horrela, hitanoa bereizketa hori indartzen duen beste estrategia bat da, bai sexua hika erabiltzeko aldagai bat delako, eta baita bi forma ezberdin daudelako genero bakoitzari erreferentzia egiteko. Ondorioz, nire itzulpenean bazterkeria hori ahalik eta gutxien nabaritu zedin saiatu naiz; beraz, token egon ohi diren elementu batzuk nokara ekartzea ideia ona iruditu zait.

3.3 Esamoldeak eta esaldiak

Antzezlanean zehar esamolde ugari agertzen dira eta, lehenengo, esamolde horiek euskarara itzuliak izan diren begiratu dut, edota horiek itzultzeko forma ezarri bat zegoen, itzulpen posible horiek erreferentziatzat hartzeko. Horrelakorik aurkitu ez dudanean, horiek itzultzeko teknika desberdinak hartu ditut kontuan. Hasteko, etxekotzea asko erabili ohi den teknika bat da: xede testuko hizkuntzan eta kulturaren zentzua daukan sorburu testuko esamoldearen baliokide bat aurkitzean datza eta, beraz, esanahi berdina daukan esaldi batekin itzuliko da, baina hitzez-hitzeko itzulpena erabili gabe. Horren harira, hitzez-hitzeko itzulpena ere kontuan eduki dut, hau da, esaldiaren itzulpen literala. Bestalde, neutralizazioa ere asko erabili ohi den teknika da, eta esamoldearen esanahia itzultzean datza, hori osatzen duten aspektu estetikoak ezabatuz, hitz-jokoak edo metaforak, alegia. Azkenik, kasu gutxi batzuetan omisiora jotzen da, hau da, testuaren pasarte hori ezabatzeraz.

Hasteko, testu osoan zehar asko erabiltzen den esamolde bat aztertuko dut: latinezko *pol* eta *edepol* (gaztelaniaz *Por Pólux*), eta latinezko *hercle* edo *mehercle* (gaztelaniaz *Por Hércules* itzuli ohi dena). Funtsean, zin egiteko erabiltzen den esamoldeak dira, zehazki, pertsonaia mitologiko baten izenean. Hasieran, hitzez-hitzeko itzulpena egin nuen, eta *Poluxengatik* eta *Herkulesengatik* bezala itzuli nituen. Gero, tutorearen zuzenketak ikusita, konturatu nintzen bazegoela esamolde horiek itzultzeko ezarritako forma bat. Izan ere, Elhuyar Hiztegian *por* hitza begiratuta, 15. azpisarreran *ala Tutatis!* agertzen da. Horrez gain, tutoreak esan bezala Orotariko Euskal Hiztegian *alajainkoa*, *ala Artemi* eta *ala Tzeu* bilatuta, ondorio berdineraz iritsi nintzen, hau da, *por* hori itzultzeko *ala* erabili behar nuela: *ala Polux* eta *ala Herkules*.

Horrez gain, antzezlanean zehar badira itzultzeko korapilatsuak izan diren esaldi batzuk. Adibidez, IV. ekitaldiko II. agerraldian, 640-641. lerroetan hain zuzen, «Azken mailan maitatzen badiat ere, ezereza baino gehiago duk» bezala itzuli dudana esaldi bat dago (jatorrizkoan, latinez, «certe extrema linea / amare haud nil est»). Oinarriztat hartu ditudan hiru testu nagusietan honela agertzen da esaldia: «En realidad, amar incluso desde la barrera, ya no es nada de nada» (Fontana, 2008), «Ciertamente algo es amar aunque sea desde la última fila» (Pociña & López, 2009), «En todo caso amar desde la última posición no es todavía la nada» (Rubio, 1991). Kasu honetan, hitzez-hitzeko itzulpena jo nuen, izan ere, ez nuen beharrik ikusi esaldia testuan bertan azaltzeko, horren ordez, oin-ohar bat txertatu nuen

azalpena emateko helburuarekin: «Donatoren arabera bost maila daude maitatzean: lehenengoa ikustea, bigarrena hitz egitea, hirugarrena ukitzea, laugarrena musua ematea eta bosgarrena larrua jotzea» .

Halaber, IV. ekitaldiko V. agerraldian, 732. lerroan hain zuzen ere, «Zeres eta Liber gabe, Venus izotzekoa da» esaldia aurki daiteke. Latinezko bertzioan «Sine Cerere et Libero friget Venus» ageri da, eta oinarriztat hartu ditudan hiru itzulpenetan honakoa: «Sin Ceres y Baco, Venus pasa frío» (Fontan, 2008), «Sin Ceres y sin Líber, fría está Venus» (Pociña & López, 2009), «Sin Ceres y sin Líber, Venus es de hielo» (Rubio, 1991). Hasieran, «Ardorik eta ogirik gabe, maitasuna ahultzen da» bezala itzuli nuen; izan ere, hitzez-hitzeako itzulpena baztertu, eta nolabait neutralizaziora jo nuen, esanahia ordezkatzera, alegia. Nolanahi ere, azkenean moldaketa batzuk egin nituen eta hasieran aipatu bezala itzuli nuen, «Zeres eta Liber gabe, Venus izotzekoa da», jatorrizkora gerturatuta. Beraz, beste behin, hitzez-hitzeako itzulpenera jo nuen, eta esamoldea hobeto ulertu zedin, oin-ohar bat txertatu nuen: «*Sine Cerere et Libero friget Venus. Zeres* ogiaren jainkosa da, Liber ardoarena, eta Venus maitasunarena. Beraz, esamoldeak honakoa esan nahi du: maitasunak biziraun dezan, janaria eta edaria behar du. Terentziok erabilitako esamolde bat da eta esaera zahar bat bihurtu zen Aro Modernoan».

Oro har, uste dut esamolde bat itzultzerakoan garrantzitsua dela aurretik itzulia izan den begiratzea, edota hori itzultzeko forma bat dagoen ezarrita. Horrela ez bada, aipatutako teknika horietako bat erabili daiteke. Nire kasuan, hitzez-hitzeako itzulpena erabili dut gehien, izan ere, oin-oharrak txertatzeko aukera neukanez, ez dut beharrik ikusi esamoldea testuan bertan itzulpenaren bidez azaltzeko.

3.4 Lexikoa

Edozein itzulpenetan bezala, ulergarritasunaren mesedetan, funtsezkoa da lexikoa ahalik eta zehatzen ematea. Oro har, itzulpena hasi baino lehenago uste nuen alor hori erraza egingo zitzaidala, izan ere, oinarriztat hainbat testu edukitzea aberasgarria izango zela uste nuen. Nolanahi ere, kasu batzuetan hainbat testu edukitzeak lagundu baino gehiago, nahastu egin nau, itzulpen desberdinen artean terminorik egokiena aukeratzeko buelta asko eman behar izan baititut.

Adibidez, latinezko bertsioan *meretrix* terminoa agertzen da, eta nik oinarriztat hartu ditudan itzulpenetako bakoitzean baliokide desberdin bana erabili dute: Andres Pociña eta Aurora Lópezen (2009) itzulpenean *meretrix* hitza erabili dute, Gonzalo Fontana Elbojonean (2008), *cortesana*, eta Lisardo Rubio Fernándezenean (1991), ordea, *prostituta*.

Termino bakoitzaren euskarazko baliokidea bilatzeko Elhuyar Hiztegiak webgunera jo nuen. *Meretrix*en lau baliokide agertzen ziren: *emagaldu*, *urdanga*, *puta* eta *bordion*. Esan beharra daukat, hasieratik baztertu nituela baliokide horiek, konnotazio negatiboa baitute, eta ni konnotazio neutroa zeukan hitz baten bila nenginen.

Bestalde, Elhuyarren *cortesana* bilatuta, sei baliokide agertzen ziren: *gorteko*, *gortesau*, *kortesano*, *kortesana*, *goi-prostituta* eta *prostituta*. Berehala baztertu nituen *gorteko*, *gortesau* eta *kortesano*, ez baitzuten testuinguruarekin bat egiten. Halaber, *goi-prostituta* terminoa zehatzegia iruditu zitzaidan, beraz, horren hiperonimoak hartu nituen baliokide posibletzat: *kortesana* eta *prostituta*.

Horren harira, bien artean egokiena aukeratzeko, gaztelaniazko *prostituta* terminoa bilatu nuen, eta honako baliokide hauek zetozen sarreran: *prostituta*, *mari-purtzil*, *mari-zirtzil* eta *maritzar*. *Prostituta* kenduta, beste guztiak baztertu nituen, bai konnotazio negatiboagatik, eta baita erabileragatik ere; izan ere, termino horiek ez dira oso erabili soilik prostitutei erreferentzia egiteko, eta gerta liteke, beraz, irakurleak argi ez ulertzea.

Hortaz, *prostituta* eta *kortesana* terminoen artean egokiena aukeratzeko, Egungo Testuen Korpusean hitz bakoitzak zeuzkan agerraldiak begiratu nituen: 2.033 eta 0, hurrenez hurren. Hala ere, *prostitutaren* agerraldi gehienak gaur egungo egunkarietako berrietakoak ziren, hala nola *Berria* eta *Argiakoak*. Izan ere, argi dago gaur egun hedatuagoa dagoela eta ohikoagoa dela *prostituta* erabiltzea *kortesana* baino.

Halaber, oraindik zein termino erabili guztiz argi ez neukanez, nire inguruko pertsonen galdetu nien irakurle bezala zein hitz ikusten zuten egokiago testuinguru horretan; 10 pertsonatik 9k esan zuten egokiago ikusten zutela *kortesana*. Emandako arrazoiak, besteak beste, *kortesana* hitzak literaturtasun eta antzinatasun kutsu gehiago transmititzen ziela, eta baita goi-mailako prostituta bat etortzen zitzaiela burura ere. Horregatik, buelta asko eman eta

gero, *kortesana* erabiltzea erabaki nuen; nahiz eta gaur egun ez dugun erabiltzen, denok ezagutzen dugun hitz bat da, edonork ulertu dezakeena.

Azkenik, antzezlanean zehar askotan egiten zaio erreferentzia Kereak Panfilari egin zionari. Horretarako, oinarritzat erabili dudana testu bakoitzak termino desberdinak erabiltzen ditu antzezlanean zehar: Andres Pociña eta Aurora Lópezen (2009) itzulpenean *abusar* eta *deshonrar*, Gonzalo Fontana Elbojanean (2008), *divertirse con la muchacha* eta *deshonrar*, eta Lisardo Rubio Fernándezenean (1991), *abusar* eta *violar*.

Gonzalo Fontana Elbojen itzulpenean, hortaz, *deshonrar* eta *divertirse con la muchacha* erabili ditu itzultzaileak bortxaketari erreferentzia egiteko. Termino horiek ez zitzaizkidan egokienak iruditu, uste baitut kontu handiagoarekin ibili beharko ginatekeela horrelako hitzak erabiltzerakoan. Adibidez, *divertirse con la muchacha* oso iraingarria iruditu zitzaidan hasieratik, eta guztiz baztertu nuen horrela itzultzea. Bestalde, hiru itzulpen horietan hainbeste agertzen den *deshonrar* terminoa bilatu nuen Elhuyarren, eta honako baliokideak agertzen ziren: *desohoratu*, *ohorea kendu*, *desohore egin/izan* eta *desondratu*. Guzti horiek erabat baztertu nituen baita ere, oso desegokia iruditu baitzitzaidan hitz horrek transmititzen duena, hots, emakume bat bortxatzen dutenean daukan balio eta ohorea kentzen diotela.

Beraz, hasieratik nahiko argi neukan jarrera hartu nuen, eta *abusar* edo *violar* hitzen baliokidea hautatu nuen: *bortxatu*. Kereak egin zuena hoberen adierazten duen hitza da, izan ere, nahiz eta beste era batzuetan esan, garrantzia kentzeko edota leuntzeko, azken finean bortxaketa bat da, eta itzulpenean argi agertu beharko litzateke bortizkeria-ekintza izan dela.

Bukatzeko, nabarmendu nahi dut *Eunukoa* duela milaka urteko antzezlan bat dela, eta edukia aldatzea egokia ez den arren, uste dudala eduki hori transmititzeko erabiltzen diren terminoak gaurkotasunera ekartzea garrantzitsua dela, irakurlearen testuinguruarekin bat egin dezan.

3. Itzulpena

III. EKITALDIA

BOSGARREN AGERRALDIA

Kerea eta Antifon

KEREA.– (*Berekiko*) Norbait al zagok hemen? Inor ez. Etxeko norbaitek jarraitzen al naik? Inork ez. Pozez lehertu naitekek orain? Ala Jupiter! Oraintxe bertan 550 nahiago niake heriotza, bizitzak poztasun hau atsekaberen batekin zapuztea baino. Baina, ez al diat aurkituko kuxkuxeroren bat, zeinak noranahi noala ere jarraituko nauen, galderekin jo eta itoko nauen! Ea zergatik nagoen hain asaldatuta, hain pozik, nora noan, nondik natorren, non aurkitu dudan jantzi hau, zer nahi dudan, edo burutik ondo nagoen.

ANTIFON.– (*Berekiko*) Harantza hurbilduko nauk eta desiratzen duen laguntza eskainiko zioat. (*Kereari*) Kerea, zergatik hago hain asaldatuta? Zer adierazi nahi dik jantzi horrek? Zein duk hire poztasunaren zergatia? Zer lortu nahi duk? Ondo al hago burutik? Zergatik begiratzen nauk? Zergatik isildu haiz?

KEREA.– Egun zoragarria niretzat! Osasuna, ene lagun! Munduan ez zagok beste 560 inor hi baino ikusteko gogo gehiago daukadanik.

ANTIFON.– Kontaidak, mesedez, zer gertatzen zaiian.

KEREA.– Kontrakoa, ala Herkules, neuk erregutzen diat entzuteko. Ezagutzen al duk nire anaiak maite duen emakumea?

ANTIFON.– Ezagutzen diat. Tais deitzen dela uste diat, ez?

KEREA.– Bai, berbera.

ANTIFON.– Hori da pentsatzen niana.

KEREA.– Gaur neskatila bat oparitu ziotek; zertarako azalduko eta laudatuko diat

haren edertasuna, Antifon? Hik ondo dakik edertasunaren dastatzaile bikaina naizela. Neskatxa horrek harrituta utzi naik.

ANTIFON.– Benetan?

KEREA.– Ikusten duanean, argi ikusiko duk zein ederra den. Zer gehiago esan zezakeat? Berarekin maitemindu ninduan. Zorte handiz, nire anaiak Taisentzat 570 erositako eunuko⁶ bat geneukaan etxean, oraindik hari eman gabe. Orduan, nire esklaboak, Parmenonek, ideia bat eman zidaan eta nik bi aldiz pentsatu gabe onartu nian...

ANTIFON.– Zein ideia?

KEREA.– Isiltzen bahaiz, lehenago jakingo duk. Berarekin arropak aldatzea eta bere ordezkariarengana joatea.

ANTIFON.– Eunukoaren ordezkari?

KEREA.– Hori duk.

ANTIFON.– Zein onura ekarriko dik hori egiteak?

KEREA.– Galdetzea ere... Bera ikustea, entzutea, berarekin batera egoteko desira asetzea, Antifon. Nire zergatia ez al duk nahikoa? Zentzugabekeria bat al duk nire arrazoia? Taisengana eraman ninditean. Harrera egin zidanean, pozik zegoan benetan; bere etxera gidatu nindian eta nire esku utzi zidaan neskatila.

ANTIFON.– Nori, hiri?

KEREA.– Bai, neuri.

ANTIFON.– Segurtasun neurri bikaina, zalantzarik gabe.

KEREA.– Neskatilarengana gizonik ez hurbiltzeko manatu zian eta niri beragandik ez urruntzeko agindu zidaan, eta berarekin bakarrik etxeko zokorik izkutuenera joateko. Baiezkoa eman nian adeitasunez eta apalki. 580

ANTIFON.– Gaixoa!

⁶ Eunuko bat zikiratutako gizon bat da. Hala ere, zentzu desberdinak izan ditu historian zehar, adibidez, Erromatar inperioan eunukotzat jotzen zituzten homosexual eta transexualak.

KEREA.– «Kanpoan afalduko diat» esan zidaan. Berarekin batera eraman zitian neskame esklaboak; gutxi batzuk gelditu zituan, erosi berriak, neskatilarekin egoteko. Ondoren, neskatoa bainatu zedin dena prestatzen hasi zituan. Dena azkar prestatzeko esan nieran. Bitartean, neskatila bere gelan eserita zegoan margolan bati begira, zeinean Jupiterren istorioa agertzen zuan, Danaeren magalean urrezko euria hustu zuenean⁷. Ni ere hari begira jarri ninduan. Jupiterrek duela urte asko nirearen antzeko jokaldia egin zianez, askoz gehiago poztu ninduan jainko batek gizon baten itxura hartu eta emakume bati iruzur egiteko inoren teilatuko inplubiotik⁸ barrura sartu izanak. Eta ez edozein jainko! «Bere dunbotsarekin zeruko eskualderik 590 garaienak astintzen dituen». Eta nik, gizontxo arrunt honek, ez al nian egingo? Ba bai, egin nian; eta oso gustura gainera. Hori pentsatzen nengoen momentuan, neskatila deitu zitean bainatzera joateko. Bainatzera joan, eta segituan bueltatu zuan. Ondoren, neskameek ohean etzan zitean. Zutik itxaron nian, ea zerbait egiteko agintzen zidatean. Batek esan zidaan: «Aizu, Doro, hartu ezazu abaniko hau eta emaiozu aire pixka bat, horrela. Bitartean, gu bainatuko gara. Gu bainatzen garenean, bainatu zaitez zu nahi baduzu». Abanikoa hartu nian atsekabez.

ANTIFON.– Benetan gustatuko zitzaidakean momentu horretan huen lotsagabe aurpegia eta itxura ikustea. Hi bezalako asto handi bat, abanikotxo batekin eskuan.

KEREA.– Hori esan orduko, kanpora joan zituan denak batera. Iskanbila sortuz joan zituan bainatzera, nagusiak etxean ez daudenean gertatu ohi den bezala. Bien 600 bitartean, loak hartzen dik neskatxa. Ni begira gelditzen nauk, zeharka, abanikoaren atzean izkutatuta. Aldi berean, ingurura begiratzen diat, dena kontrolpean dagoen egiaztatzeko; dena ondo dagoela ikusi eta atearen kisketa ixten diat.

ANTIFON.– Eta orduan, zer?

KEREA.– Nola «eta orduan zer»? Erraza!

ANTIFON.– Arrazoia daukak.

⁷ Danaeren mito famatuaren irudikapena. Danae Argosko errege Akrisioren eta Euridizeren alaba zen. Akrisiok dorre batean giltzapetu zuen bere alaba, izan ere, orakulu batek iragartzen zion Danaeren seme batek heriotza ekarriko ziola. Hala ere, Zeusek (Jupiterrek) dorrean sartzea lortu zuen urrezko euriaren itxura hartuta, eta Danaeren magalean erori zen eta haurdun utzi zuen (Pertseo izango zen bien semea).

⁸ Etxe erromatarretako atarian egon ohi zen putzu bat zen, teilatuko euri-ura biltzen zuena.

KEREA.– Hain aukera onari, azkarrari, desiratuari eta ezustekoari ihes egiten utziko nioan? Orduan benetan izango nindukean ordezkatzan ari ninduan pertsonaia, ala Polux.

ANTIFON.– Egia duk, ala Herkules. Baina, zer gertatu duk gure janariarekin?

KEREA.– Dena zagok prest.

ANTIFON.– Gizon bikaina haiz. Non? Hire etxean?

KEREA.– Ez, Disko libertoaren⁹ etxean.

ANTIFON.– Oso urruti zagok; beraz, goazen azkar. Aldatu arropak.

KEREA.– Non aldatuko nauk? Galduta nagok, etxetik deserritua nagok eta! Etxean 610 anaia egoteak beldurtzen naik, edota nire aita landa aldetik¹⁰ bueltan izateak.

ANTIFON.– Joan gaitezen nire etxera, arropak aldatzeko lekurik hurbilena duk eta.

KEREA.– Arrazioa daukak, goazen. Bide batez, hire laguntza behar diat neskatxa nola lortu asmatzeko.

ANTIFON.– Ados.

IV. EKITALDIA

LEHENENGO AGERRALDIA

Dorias

DORIAS.– (*Berekiko*) Jainkoak, babes nazazue! Harengan ikusi dudanagatik, gaixo honek, ezin dinat beldurra uxatu, soldadu zoro horrek ez ote duen Taisen etxean

⁹ Libertoa askatasuna eman zitzaion pertsona bat zen, aurretik esklaboa izandakoa. Erromatar inperioko gizartearen % 5 osatzen zuten.

¹⁰ Erromatar aberatsenek bigarren etxe bat eduki ohi zuten, noizbehinka hiriko bizitzatik aldentzeko. Bigarren etxe horiek landa aldean edo kostatik gertu ohi ziren.

iskanbila edo liskarren bat sortuko. Gazte hura iritsi zenean, Kremes, neskatxaren neba, Taisek gazteari sartzen uzteko eskatu zionan soldaduari. Soldadua segituan haserretu zunan, baina ez zunan eskaera ukatzen ausartu. Taisek gaztea gonbidatzeko erregutzen jarraitu zinan. Kremes entretenitzeko egiten zinan, 620 oraindik ez baitzen bere arrebarekin gertatutakoa azaltzeko momentua. Azkenean, gogo txarrarekin gonbidatu zinan. Gazteak onartu egin zinan. Orduan, Tais berarekin hitz egiten hasi zunan. Baina soldaduak pentsatu zinan lehiakide bat jarri ziotela bere begien aurrean, eta, Tais amorrarazteko, agindu zinan: «Aizak, morroi, ekarri Panfila, pixka bat entretenitu gaitzan». Taisek orduan esan zinan: «Inola ere ez! Neskatxa hori oturuntza batean!¹¹» Soldadua tematu egin zunan, eta horrek eztabaida bat eragin zinan. Bitartean, Taisek bere bitxiak kendu zitinan izkutuan, eta niri eman zizkidanan, handik eraman nitzan. Ahal bezain laster etxe hartatik alde egingo duelako seinalea din. Argi zaukanat.

BIGARREN AGERRALDIA

Fedria

FEDRIA.– Landa aldera bidean nengoela, pentsatzen jarri ninduan, eta buruan 630 egonezinen bat daukagunean gertatu ohi den bezala, egoera okerrenetan jarri ninduan. Zertarako esango diat gehiago? Pentsatzen nengoelarik, nahi gabe atzean utzi nian nire etxaldea. Konturatu nintzenerako, nahiko urruti nengoan. Atzeraka joan ninduan berriro, nire burua madarikatzen nuen bitartean. Gure etxaldeko bidegurutzera bertara iritsi nintzenean, gelditu eta hausnartzen hasi ninduan: «Zer, hemen geratu beharko nauk bi egunez, bakarrik, eta bera gabe? Eta gero zer? Ezer ez. Nola ezer ez? Agian ez diat ukitzeko aukerarik edukiko, behintzat ikusi ahalko diat, ez ala? Lehenengorako aukerarik ez bazagok, bigarreneako egon beharko 640 likek. Azken mailan¹² maitatzen badiat ere, ezereza baino gehiago duk».

¹¹ Garai hartan, Atenaseko ohituren arabera, gaizki ikusia zegoen emakume libre bat kortesanaz betetako oturuntza batean egotea.

¹² Donatoren arabera bost maila daude maitatzean: lehenengoa ikustea, bigarrena hitz egitea, hirugarrena ukitzea, laugarrena musua ematea eta bosgarrena larrua jotzea.

Oraingoan, nahita igaroko nauk etxalde aurretik gelditu gabe. Baina, zergatik zatorrek Pitias korrika eta presaka, beldurrez?

HIRUGARREN AGERRALDIA

Pitias, Fedria eta Dorias

PITIAS.– (*Berekiko*) Non aurkituko dinat gaixo honek kriminal madarikatu hori, lotsagabe hori? Non bilatu beharko dinat? Nola eduki din horrelako okerkeria egiteko ausardia?

FEDRIA.– (*Berekiko*) Galduta nagok! Beldurra ematen zidak hemen gerta litekeenak.

PITIAS.– (*Berekiko*) Gainera, gizatxar horrek, neskakta bortxatu eta gero, soinekoa urratu zionan, eta baita ilea errotik erauzi ere.

FEDRIA.– (*Berekiko*) Ai ama!

PITIAS.– (*Berekiko*) Oraintxe bertan nire eskuetan edukiko banu, gogo handiz aterako nizkioken begiak neure azazkalekin ustel horri!

FEDRIA.– (*Berekiko*) Zalantzarik gabe, iskanbilaren bat egon duk etxean, ni kanpoan egon naizen bitartean. Gerturatuko nauk. (*Entzuteko moduan*) Zer dun 650 hori? Zergatik hago hain urduri? Noren bila habil, Pitias?

PITIAS.– Hara, begira, Fedria! Noren bila nabilen? Joan zaitetz hemendik merezi duzun lekura, zure opari barregarri horrekin!

FEDRIA.– Zer gertatzen duk?

PITIAS.– Galdetzea ere! Egundoko iskanbila sortu zuen oparitu zenigun eunukoak! Soldaduak nire andreari oparitu zion neskakta bortxatu zuen!

FEDRIA.– Zer dion?

PITIAS.– Galduta nago!

FEDRIA.– Edanda hago!

PITIAS.– Ni bezala egon daitezela gaizki maite nautenak!

DORIAS.– Pitias maitea, ze munstro zunan hura?

FEDRIA.– Zoratuta hago. Nola egin dezake horrelako zerbait eunuko batek?

PITIAS.– Zer zen, zehazki ez dakit. Errealitateak argi erakusten du zer egin zuen. Neskaxa negarrez hustu beharrean dago, eta galdetzen diozunean, ez da ausartzen zer gertatzen zaion kontatzera. Bestalde, gizon liluragarri hura ez da 660 inon ageri. Are susmatzen dut etxetik joatean zerbait eraman duela.

FEDRIA.– Ez dinat uste ziztrin hori oso urruti joan ahal izango zenik; baliteken gure etxera bueltatu izana.

PITIAS.– Begira ezazu, mesedez, han dagoen.

FEDRIA.– Oraintxe bertan jakinaraziko dinat.

DORIAS.– Hau zoritxarra! Zin zaginat, maitea, ez dinat horrelako gaiztakeria lotsagaberik inoiz entzun!

PITIAS.– Nik entzunda neukanan, ala Polux, eunukoak emakumeekin izugarri maitemintzen direla, baina uste ninan inpotenteak zirela. Egia esan, ez zitzaidanan inoiz horrelakorik bururatu, zorigaiztoko honi; bestela beste lekuren batean giltzaperatuko nikenan, eta ez niokenan inoiz neskaxa zaintzeko eskatuko.

LAUGARREN AGERRALDIA

Fedria, Doro, Pitias eta Dorias

FEDRIA.– Kalera, lotsagabe hori! Ez haiz mugituko, desertore? Kanpora, merkantzia txar hori!

DORO.– Arren!

FEDRIA.– Begira nola bihurritzen duen aurpegia kriminal honek! Nolatan 670
buelatu haiz hona? Zer esan nahi dik arropa aldaketa horrek? Zer diok?
Beranduago etorri izan banintz, Pitias, ez nikenan etxean harrapatuko; ondo
prestatuta zeukanan ihesaldia.

PITIAS.– Ba al daukazu gizona?

FEDRIA.– Nola ez dinat edukiko?

PITIAS.– Ondo egina!

DORIAS.– Ala Polux, oso ondo.

PITIAS.– Non dago?

FEDRIA.– Galdetzea ere! Ez al dun ikusten?

PITIAS.– Ikusten dudan? Mesedez, nor?

FEDRIA.– Hau, argi zagon.

PITIAS.– Nor da gizon hori?

FEDRIA.– Gaur zuen etxera eraman dutena.

PITIAS.– Fedria, biotako batek ere ez du gizon hau bere begiekin inoiz ikusi.

FEDRIA.– Ez din zuetako inork ikusi?

PITIAS.– Benetan pentsatu duzu gizon hori dela etxera ekarri digutena?
Mesedez. 680

FEDRIA.– Noski, ez dinat besterik eduki.

PITIAS.– Ez dute zerikusirik! Besteak itxura dotorea eta ederra zeukan.

FEDRIA.– Baliteken duela momentu bat hala iruditzea, arropa koloretsuarekin.
Orain, hura gabe, itsusia iruditzen zain.

PITIAS.– Ixo, faborez! Desberdintasun gutxi egongo balitz bezala! Gustura
begiratuko zenukeen gazte bat ekarri digute gaur, Fedria. Hemengo hau agure
zahar eta traketsa da, erbinude kolorekoa.

FEDRIA.– Aizan, ze komedia din hau? Nik neuk egindakoa zer den ez dakidala 690
sinestaraziko didan? (*Dorori*) Aizak, ez al hintudan nik erosi?

DORO.– Bai.

PITIAS.– Esaiozu orain niri erantzuteko.

FEDRIA.– Galdetu, galdetu!

PITIAS.– Gure etxera etorri haiz gaur? (*Fedriari*) Ezetz esaten du. Baina beste
hura bai etorri zen, hamasei urte ingurukoa, Parmenonekin batera etorri zena.

FEDRIA.– Aizak, azaldu hau lehenengo: nondik atera duk jantzi hori? Isilik
geldituko haiz, munstro hori? Ez duk hitzik esango?

DORO.– Kerea... etorri zen...

FEDRIA.– Nire anaia?

DORO.– Bai.

FEDRIA.– Noiz?

DORO.– Gaur.

FEDRIA.– Duela zenbat?

DORO.– Arestian.

FEDRIA.– Norekin?

DORO.– Parmenonekin.

FEDRIA.– Aurretik ezagutzen huen?

DORO.– Ez, eta ez nuen berari buruz inoiz entzun.

FEDRIA.– Orduan, nondik atera dik nire anaia zela?

700

DORO.– Hala zioen Parmenonek. Hark eman zidan arropa hau.

FEDRIA.– Galduta nagok!

DORO.– Eta hark nire arropa jantzi zuen. Gero, batera atera ziren kalera.

PITIAS.– Nahikoa da sinesteko ez nagoela edanda eta ez dizudala gezurrik esan?

Argi geratu da neskatxa bortxatua izan zela?

FEDRIA.– Tira, honek dioena sinistuko din pizti horrek?

PITIAS.– Sinistu? Errealitateak argi uzten du.

FEDRIA.– Aldendu hadi pixka bat, bai? Pixka bat gehiago. Nahiko. Esaidak berriz: Kereak kendu zian jantzia?

DORO.– Bai, horrela da.

FEDRIA.– Eta hark jantzi zian?

DORO.– Bai.

FEDRIA.– Eta hona ekarri zitean, hire orde?

DORO.– Bai.

FEDRIA.– Ala Jupiter handia! Ze gizon ausarta, kriminala halakoa!

PITIAS.– Gaixoa ni! Oraindik ez zaude ziur amarru iraingarriekin engainatu 710 gaituztela?

FEDRIA.– Zuk hark esandakoa ez sinisteak harrituko nindiken. (*Berekiko*) Ez zakiat zer egin. (*Dorori, ahopeka*) Hi, orain ukatu dena. (*Entzuteko moduan*) Ez al diat gaur egiarik aterako? Nire anaia Kerea ikusi dik?

DORO.– Ez.

FEDRIA.– (*Pitiasi*) Ikusten dinat ez duela egia esango tormenturik gabe. (*Dorori*) Hator nire atzetik. (*Pitiasi*) Batean baietz esaten din, eta hurrengoan ezetz. (*Dorori, ahopeka*) Hasi barka eske erreguka.

DORO.– Fedria, arren erregutzen dizut barkatzeko, zin-zinez!

FEDRIA.– Joan barrura segituan!

DORO.– Ai ene, ai ama!

FEDRIA.– (*Berekiko*) Ez diat ataka honetatik ateratzeko modu zintzorik ikusten.
(*Dorori*) Nitaz burlatzen bahaiz berriro, hireak egin dik, mandil hori!

PITIAS.– Erabat seguru nagon: Parmenonen trikimailuren bat zagon tartean.

DORIAS.– Bai, argi zagon.

PITIAS.– Ala Polux, modua aurkituko dinat egindakoagatik ordaindu dezan! Zer uste din egin behar dugula orain, Dorias?

720

DORIAS.– Neskatzari dagokionez?

PITIAS.– Bai. Isilik geldituko naun ala dena kontatuko dinat?

DORIAS.– Ala Polux! Zentzuduna bahaiz, ezjakinarena egingo din, bai eunukoaren inguruan eta baita bortxaketaren inguruan ere. Esan bakarrik Doro desagertu dela.

PITIAS.– Hori egingo dinat.

DORIAS.– Baina, hori ez al dun Kremes? Laster iritsiko dun Tais.

PITIAS.– Zergatik?

DORIAS.– Handik atera nintzenean euren arteko liskarra hasita zegoelako.

PITIAS.– Eraman bitxi horiek. Kremesi zer gertatzen ari den galdetzera noan.

BOSGARREN AGERRALDIA

Pitias, Kremes eta Tais

KREMES.– (*Berekiko*) Hara, hara! Ala Herkules, engainatu egin naitek! Edan dudan ardoak nirekin ahal izan dik. Baina, etzanda nengoen bitartean, edana ez nengoelako ustea neukaan! Baina altxa naizenetik, ez oinek ez buruak ez ditek beren egitekoa betetzen!

PITIAS.– Kremes!

730

KREMES.– Nor zagon hor? Hara, begira: Pitias! Arestian baino ederrago ikusten haut!

PITIAS.– Eta zu, egia esan, askoz gazteago, ala Polux!

KREMES.– Ala Herkules, egia izango duk «Zeres eta Liber gabe, Venus izotzezkoa da»¹³ dioen esaera. Duela asko iritsi dun Tais?

PITIAS.– Soldadua joan al da?

KREMES.– Duela asko, duela mende bat. Eztabaida ikaragarria eduki diten.

PITIAS.– Eta ez al dizu esan berarekin joateko?

KREMES.– Ez, seinale bat egin zidan ateratzerakoan.

PITIAS.– Ez al zen hori nahikoa?

KREMES.– Ez nekinan zer esan nahi zuen horrekin. Eskerrak soldaduak nire adimen falta konpondu zuela, ni kalera botata. Hara, hemen zagon aurrez aurre! Non hartuko nionan aurre?

SEIGARREN AGERRALDIA

Tais, Kremes eta Pitias

TAIS.– (*Berekiko*) Benetan uste dinat neskatxa indarrez kentzeko etorriko dela. Etor dadila! Atzamar bakar batekin ukitzen badin, begiak zuztarretatik aterako zizkionat. Haren ergelkeriak eta harropuzkeriak jasan zitzakenat, bere horretan gelditzen baditun, hitzetan. Baina ekintzara pasatzen baditun, astinaldi bat emango zionat. 740

¹³ *Sine Cerere et Libero friget Venus.* Zeres ogiaren jainkosa da, Liber ardoarena, eta Venus maitasunarena. Beraz, esamoldeak honakoa esan nahi du: maitasunak biziraun dezan, janaria eta edaria behar du. Terentziok erabilitako esamolde bat da eta esaera zahar bat bihurtu zen Aro Modernoan.

KREMES.– Tais, aspalditik nagon hemen!

TAIS.– A ze ustekabea, Kremes maitea! Hire bila nembilean hain zuzen. Jakitun haiz higatik sortu den iskanbilaz? Ba al dakik hire interesekoa dela anabasa hau?

KREMES.–Nigatik? Nola?

TAIS.– Hire arreba bueltatzeko ahalegina egiten ari ninduan bitartean, atsekabe horiek eta beste horrenbeste pairatu behar izan ditiat.

KREMES.– Non zagon nire arreba?

TAIS.– Nirekin, etxean.

KREMES.– Hara...

TAIS.– Zer gertatzen duk? Hark eta hik merezi bezala hezi diat.

KREMES.– Zer dion?

TAIS.– Egia baino ez. Opari baten gisa emango diat, eta harengatik ez diat ordainik eskatuko.

KREMES.– Tais, faborea eskertzeaz gain, bueltatuko dinat, merezi dunan 750 bezala.

TAIS.– Baina kontuz, Kremes. Ez galdu nik eman baino lehen, soldaduak indarrez kenduko didana hire arreba duk eta. Hi, Pitias, joan eta ekarri etxetik nortasun-agirien saskitxo¹⁴.

KREMES.– Tais, ikusten al dun...?

PITIAS.– Non dago?

TAIS.– Kutxan. Bizkor! Jasanezina haiz!

KREMES.– ...soldaduak hire kontra dakarren indar-ostea? Ai ene!

TAIS.– Koldarra izango al haiz, lagun? Mesedez.

¹⁴ Urrez egindako objektu txikien bilduma da. Ume galdu batekin batera aurkitzen denean, hura ezagutzeko balio du komedian.

KREMES.– Bai zera! Koldarra ni? Ez zagon bizidunen artean ni baino ausartagorik.

TAIS.– Ba hori duk behar dena.

KREMES.– Ai, ze gizon mota uste dun naizela ni?

TAIS.– Gogoan hartu honakoa: aurre egin beharko diozun gizona atzerritarra duk, ez duk hi bezain boteretsua, ezta hain ezaguna, eta hik baino lagun gutxiago ditik hemen. 760

KREMES.– Bazakinat. Baina saihestu daitekeen kolpearen zain egotea ergelkeria hutsa dun. Nahiago dinat neurriak orain hartu, kaltea pairatu eta gero mendeku hartzea baino. Hi, joan eta itxi atea barrutik. Bitartean, fororantz aterako naun. Iskanbila honen erdian, laguntzaileak eduki nahi ditinat.

TAIS.– Itxaron.

KREMES.– Hau dun onena.

TAIS.– Itxaron.

KREMES.– Utzidan. Oraintxe etorriko naun.

TAIS.– Ez duk laguntzailerik behar, Kremes. Esan bakarrik txikitan galdu huen arreba dela; orain ezagutu duala. Erakutsi frogak.

PITIAS.– Hemen daude.

TAIS.– Har itzak. Indarra erabiliz zerbait egiten saiatzen baduk, eraman auzitara. Ulertu duk?

KREMES.– Oso argi.

TAIS.– Jaso soingaineko¹⁵ hori. (*Berekiko*) Gaixoa ni! Babesletzat hartzen dinat eta berak behar din babeslea! 770

¹⁵ Soingainekoa (*pallium* latinezkoan) jasotzea borrokarrako prestatzearen seinale da.

ZAZPIGARREN AGERRALDIA

Trason, Gnaton, Sanga, Tais eta Kremes

TRASON.– Nola onartuko diat irain hain nabarmena, Gnaton? Hobea litzakek hiltzea! Simalion, Donax, Sirisko, jarraitu! Hasteko, etxea menderatuko diat.

GNATON.– Ondo!

TRASON.– Neskaxa atzemango diat.

GNATON.– Bikain.

TRASON.– Taisi berari ere astindua emango zioat.

GNATON.– Zoragarri.

TRASON.– Hi, Donax, guda-taldearen erdigunera, palankarekin. Hi, Simalion, ezkerreko hegalerara. Hi, Sirisko, eskumara. Ea, gainontzekoak. Non zeudek Sanga zenturioia¹⁶ eta bere lapur-manipulua¹⁷?

SANGA.– Hemen, nagusi!

TRASON.– Nola, alfer hori? Hor ekarri duan sukaldeko trapuarekin borrakatzeko asmoa al duk?

SANGA.– Nik? Jeneralaren balioa ezagutzen nuen, eta haren soldaduen indarra ere bai. Badakit gudu hau ez dela odolik isuri gabe bukatuko. Nola garbituko nituen zauriak bestela?

TRASON.– Non zaudek besteak?

780

GNATON.– Arraiopola! Nola «besteak»? Sanion baino ez da falta, etxea zaintzen dago eta.

TRASON.– Hi, jar itzak hauek formazioan! Ni atzeguardian¹⁸ geldituko nauk,

¹⁶ Aginte taktiko eta administratiboa zuten ofizialak ziren, 100 soldadu inguruz osatutako zenturia zuzentzen zuten.

¹⁷ Erromatar legioaren unitate bat zen. Manipulu bakoitza 160 soldadu inguruz zegoen osatuta.

¹⁸ Erasotzen ari den indar militarren frontearen aurkako alde da, eta horien komunikazioaz eta hornikuntzaz arduratzen dira han dauden indarrak.

eta handik emango diat seinalea.

GNATON.– (*Berekiko*) Hori duk zentzuduna izatea. Borrokarako prestatu ditik, eta bera leku seguruan jarri duk.

TRASON.– Estrategia bera erabiltzen zian Pirrok¹⁹.

KREMES.– Tais, ikusten dun zer ari den egiten? Zalantzarik gabe, atea ixtea da erabaki zentzudunena.

TAIS.– Orain heroi bat dela uste duzun arren, mandil bat baino ez duk. Ez eduki beldurrik.

TRASON.– Zer iruditzen zaik?

GNATON.– Gustatuko litzaidake norbaitek zuri habaila²⁰ bat ematea, gauden posizio urruti eta izkututik astintzeko haiek. Alde egingo lukete!

TRASON.– Hara, hemen ikusten diat Tais aurrez aurre.

GNATON.– Zeren zain gaude erasotzeko?

TRASON.– Itxaron. Gizon zuhurrari komeni zaiok aukera guztiak agortzea, armetara pasa baino lehen. Nola dakik ez dutela nik eskatutakoa egingo 790 indarkeriarik gabe?

GNATON.– Ene jainkoak! Ze baliotsua den zuhurtzia! Inoiz ez naiz zugandik aldentzen jakitunagoa izan gabe.

TRASON.– Tais! Hasteko, erantzun galdera honi: neskaxa hura eman nizunean, ez al zenidan esan egun horiek niri bakarrik emango zenizkidala?

TAIS.– Bai, eta?

TRASON.– Eta galdetzen didazu? Zuk, zure maitalea nire begien aurrera ekarri didazun horrek?

¹⁹ Epiroko erregea izan zen Pirro (k.a 318-272). Erromatarren kontra borrokatu zuen bi gudutan, Heraklean eta Askulumen, k.a 281ean eta 279an hurrenez hurren. Bietan garaile atera zen arren, hainbeste galera eduki zituen, ezin izan zuela ezer egin Erromak Grezia Handia hartu zuenean.

²⁰ Bi sokaz osatutako arma bat zen, muturrean edukitoki bat zeukana jaurtigaiak botatzeko.

TAIS.– (*Berekiko*) Zer egin behar dinat horrelako tipo batekin?

TRASON.– Zuk, harekin izkutuan alde egin duzun horrek?

TAIS.– Gustura egin nian.

TRASON.– Orduan, bueltatuidazu Panfila, indarrez kentzea nahiago ez baduzu.

KREMES.– Bueltatzera ausartu dadila! Ausartu haiz hi hura ukitzera!
Erokeriaren gaindia!

GNATON.– Aizu, zer egin nahi duzu? Ixo!

TRASON.– Zer egin nahi duzu? Ezin dut ukitu, nirea izanda?

KREMES.– Zurea, madarikatua?

GNATON.– Kontuz ibili, mesedez. Ez dakizu ze gizon laidoztatzen ari zaren.

KREMES.– Oraindik ez al haiz hemendik joan? (*Trasoni*) Eta zu, ez al dakizu 800
zein egoeratan zauden? Gaur hemen iskanbilaren bat hasten bada, betirako
gogoratuko zara leku honetaz, egun honetaz eta nitaz.

GNATON.– Pena ematen didazu; horrelako gizon ospetsu bat bilatzea ere etsai
bezala!

KREMES.– Ez bahoa, burua apurtuko diat.

GNATON.– Benetan diozu, txakur horrek? Horrela jokutzen duzu?

TRASON.– Nor zara zu? Zertan ari zara? Zer zerikusi daukazu neskatxarekin?

KREMES.– Jakingo duzu. Hasteko, emakume askea dela esango dizut.

TRASON.– Zer?

KREMES.– Eta Atenaseko hiritarra.

TRASON.– Ai ene!

KREMES.– Nire arreba.

TRASON.– Lotsabakoa!

KREMES.– Soldadu, orain agindu bat emango dizut: ez erabili inolako indarkeriarik harekin. (*Taisi*) Tais, ni Sofrona inudearen etxera joango naiz, hau frogatzen duten agiriak erakus ditzan.

TRASON.– Neskaxa ukitzea galarazi didazu, nirea izanda ere?

KREMES.– Galaraziko dizut, ziurtatzen dizut.

GNATON.– Ez al duzu entzuten? Ebasketaren errudun aitortzen du bere burua. Zuretzat nahikoa da horrekin.

810

TRASON.– Zuk gauza bera aitortzen duzu, Tais?

TAIS.– Bilatu erantzungo dizun norbait.

TRASON.– Eta orain, zer egingo diagu?

GNATON.– Itzul gaitezen. Bere kabuz etorriko da erreguka.

TRASON.– Hori uste duk?

GNATON.– Zalantzarik gabe. Emakumeen izaera ezagutzen dut. Batek nahi duenean, haiek ez dute nahi, eta norberak ez duenean nahi, haiei orduan etortzen zaie gogoa.

TRASON.– Behaketa ona.

GNATON.– Lizentzia emango diot gure armadari?

TRASON.– Nahi duzunean.

GNATON.– Sanga, soldadu ausartei dagokien bezala, gogoratu hire etxeko sua.

SANGA.– Aspalditik daukat burua kazoletan.

GNATON.– Gizon ausarta haiz.

TRASON.– Zuok, jarraitu niri hemendik!

V. EKITALDIA

LEHENENGO AGERRALDIA

Tais, Pitias

TAIS.– Sorgin horrek nahaste-borraste horrekin ni nahasten jarraituko dun? «Bazakinat..., ez zakinat..., joan dun..., entzun ninan, ez nengonan han...» Ezin didan argi esan zer gertatu den? Neskaxa, arropa urratuarekin, negarrez zagon, 820 eta ez din hitzik esaten. Eunukoa desagertu dun. Zergatik? Zer gertatu dun? Isilik geldituko haiz?

PITIAS.– Zer esango dizut, gaixo honek? Esaten dute ez zela eunukoa.

TAIS.– Orduan, nor zunan?

PITIAS.– Kerea hori.

TAIS.– Ze Kerea?

PITIAS.– Gazte hori, Fedriaren anaia.

TAIS.– Zer dion, sorgin horrek?

PITIAS.– Erabat ziur esan dezaket.

TAIS.– Eta zer egiten zinan gure etxean? Mesedez, zergatik ekarri zitenan?

PITIAS.– Ez dakit. Zalantzarik gabe, Panfilarekin maiteminduta dago.

TAIS.– Zer? Gaixo hau, hilko naun, zoritxarreko honek esaten didana egia badun! Horregatik egiten din negar dontzeilak?

PITIAS.– Hori uste dut.

TAIS.– Zer dion, madarikatu horrek? Horiek ditun hemendik ateratzerakoan 830 eman nizkinan agindu zorrotzak?

PITIAS.– Zer egingo nuen? Agindu zenidan bezala, haren esku bakarrik utzi

nuen.

TAIS.— Sorgin hori! Ardia eman dion otsoari! Lotsa ematen zidan horrela engainatua izanak! Zer nolako gizakia dun harako hura?

PITIAS.— Ixo, ixo, mesedez, andre hori! Salbatuak gaude! Hor daukagu aipatutako gizona, aurrez aurre.

TAIS.— Non zagon?

PITIAS.— Begira, ezkerrean. Ikusten duzu?

TAIS.— Ikusten dinat.

PITIAS.— Ahalik eta azkarren atxilotu dezatela.

TAIS.— Eta zer egingo dinagu harekin, ergel hori?

PITIAS.— Zer egingo duzun galdetu didazu? Ikusi, arren, begiratzen duzunean nolako lotsagabe aurpegia daukan. Ezta? Gainera, a ze harrokeria harena!

BIGARREN AGERRALDIA

Kerea, Tais eta Pitias

KEREA.— (*Berekiko*) Antifonen etxean haren aita eta ama zeudean, biak. 840
Bazirudian nahita zela; ez zegoan sartzeko modurik ikusia izan gabe. Bien bitartean, atearen aurrean nengoela, ezagun bat agertu zuan. Ikusi nuenean, etxarte huts batetik barrena sartu ninduan korrika. Gero beste batean, eta ondoren bestean. Horrela, dohakabe baten antzera, ihesean ibili ninduan ezagutua ez izateko. Baina, ez ote duk hori Tais? Bera duk. Ez zakiat zer egin. Eta niri, zer axola zaidak? Zer egingo zidak?

TAIS.— (*Pitiasi*) Hurbildu gaitezen. (*Kereari, ironikoki*) Osasuna, Doro, gizon 850
bikain hori. Esaidak, alde egin dik?

KEREA.– Hala da, andre hori.

TAIS.– Eta hori ondo iruditzen zaik?

KEREA.– Ez.

TAIS.– Zigorrik gabe aterako haizela uste duk?

KEREA.– Barkaidazu akats bakar hau. Noizbait besteren bat egiten badut, hil nazazu.

TAIS.– Nire zorrotasunak beldurra ematen zian?

KEREA.– Ez.

TAIS.– Orduan, zerk?

KEREA.– Honek (*Pitias seinalatu*) zure aurrean salatzeak.

TAIS.– Zer egin huen ba?

KEREA.– Ezer gutxi.

PITIAS.– Aizu, «ezer gutxi»? Lotsagabe hori! «Ezer gutxi» iruditzen zaizu hiritarra den dontzeila bat bortxatzea?

KEREA.– Esklabo kide bat zela uste nuen.

PITIAS.– Esklabo kide bat? Zure ilea errotik ez ateratzeko neure burua kontrolatzen nago, munstro hori! Gainera barre egingo diguzu! 860

TAIS.– Hoa hemendik, emakume zoro hori!

PITIAS.– Zergatik? Egingo banu ere, oraindik zorretan geldituko nintzateke kriminal honekin. Batez ere zure morroia dela esaten duelako.

TAIS.– Buka dezagun komedia hau. Kerea, egin huena iraingarria duk. Irain hori ondo merezita daukadan arren, mespretxagarria duk, ordea, hik egin izana. Ala Polux! Ez zakiat ze erabaki hartu neskaxari dagokionez. Haren senideei bidezkoa zuan bezala bueltatzeko plan guztiak korapilatu dizkidak. Gainera, nik prestatu 870 nian bezala, mesede eder bat lortuko nian honen truke.

KEREA.– Tais, espero dinat hemedik aurrera betiereko abegikortasuna egotea gure artean. Sarritan sortzen dun horrelako egoeretatik adiskidetasuna, nahiz eta hasiera txarra eduki. Nork zakin? Baliteken jainkoren batek planeatu izana!

TAIS.– Ala Polux, zentzu horretan hartzen ditiat gauzak, eta baita onartu ere.

KEREA.– Bai, arren. Jakin behar dun ez nuela hi iraintzeko egin, maiteminduta nagoelako baizik.

TAIS.– Bazakiat. Eta horregatik, ala Polux, barkatzen diat. Ez nauk hain bihotz- 880
gogorra, Kerea. Ez nauk hain esperientzia gabea maitasunaren indarra ez ezagutzeko.

KEREA.– Hi ere maite haut, Tais, eta Jainkoek maita nazatela, nik hi maite hauten bezala!

PITIAS.– Ala Polux, ugazaba-andre hori, iruditzen zait gizon horrekin kontuz ibili behar duzula.

KEREA.– Ez ninduken ausartuko.

PITIAS.– Zutaz ez naiz batere fidatzen.

TAIS.– (*Pitiasi*) Nahikoa dun.

KEREA.– (*Taisi*) Kontu honekin laguntzeko erregutzen dinat. Hire esku jarriko naun, hire babespean; nire zaindaritzat hartzen haut. Tais, entzun arren: hilko naun harekin ezkontzen ez banaun!

TAIS.– Baina hire aita...

KEREA.– Zer? Onartuko liken, ziur nago, hiritarra badun. 890

TAIS.– Pixka bat itxaron nahi baduk, oraintxe etorriko duk dontzeilaren neba. Txikitan hezi zian inudearen bila joan duk. Hi, Kerea, hemen egongo haiz ezagutze-ekitaldian.²¹

KEREA.– Noski, hemen geldituko naun.

²¹ Ekitaldi horretan Panfilaren eskubideak aitortuko dira Atenaseko hiritar gisa.

TAIS.– Iristen den bitartean, nahiago duk etxean itxaron, hemen atean gabe?

KEREA.– Bai, atsegin osoz.

PITIAS.– (*Taisi*) Mesedez, zer egingo duzu?

TAIS.– Zer gertatzen dun ba?

PITIAS.– Benetan galdetzen didazu? Gizon hau onartuko duzu etxean, gertatutakoa gertatu eta gero?

TAIS.– Zergatik ez?

PITIAS.– Fida zaitetz nire aholkuez; azpijokoren bat egingo dizu berriro.

TAIS.– Ixildu hadi, mesedez!

PITIAS.– Haren lotsagabekeria ez duzula ezagutzen dirudi.

900

KEREA.– Ez dinat ezer egingo, Pitias.

PITIAS.– Hala izango da, Kerea, ala Polux... egiteko aukerarik ez badaukazu.

KEREA.– Tira, Pitias, izan nire zaindaria!

PITIAS.– Ala Polux, ez nintzateke ausartuko zure eskutan ezer uzten zuk zaintzeko, eta are gutxiago zu zaintzen! Hurrundu nigandik!

TAIS.– Oso momentu onean iritsi duk anaia.

KEREA.– Nireak egin dun, ala Herkules. Goazen barrura, Tais. Ez dinat kalean jantzi honekin ikusterik nahi.

TAIS.– Zergatik? Lotsa ematen dik?

KEREA.– Hala dun.

PITIAS.– «Hala dun». A ze neskatxa txintxo!

TAIS.– (*Kereari*) Hoa aurretik eta ni atzetik joango nauk. (*Pitiasi*) Hi, geratu hemen eta lagundu Kremesi etxe barrura.

HIRUGARREN AGERRALDIA

Pitias, Kremes eta Sofrona

PITIAS.– (*Berekiko*) Zer? Zer asmatu zezakenat nik orain? Zer egin zezakenat 910
eunuko faltsuarena sinestarazi zigunan horri merezitakoa emateko?

KREMES.– Mugitu azkarrago, inude!

SOFRONA.– Bai, banoa.

KREMES.– Ikusten dinat, baina ez dun batere aurreratzen.

PITIAS.– (*Kremesi*) Frogak erakutsi dizkiozu inudeari?

KREMES.– Denak.

PITIAS.– Zer dio, arren? Ezagutzen ditu?

KREMES.– Zalantzarik gabe.

PITIAS.– Ala Polux, berri bikain bat eman didazu, neskatxaren ongizateak
kezkatzen bainau! Sartu zaitezte, aspalditik baitago nire ugazaba-andrea zain.
(*Berekiko*) Hara non datorren Parmenon zintzoa! Begira ze lasai dagoen,
arranopola! Jainkoek nahi baditen, gizon honi sufriarazi behar zionat! 920
Barrurantz joango naun, ezagutze-ekitaldiaren inguruan jakiteko. Ondoren,
aterako naun eta madarikatu hori ikaratuko dinat!

LAUGARREN AGERRALDIA

Parmenon eta Pitias

PARMENON.– (*Berekiko*) Kerea hemendik zertan dabilen ikustera natorrek.
Kontua abileziaz maneiatu badik, jainko maiteak, ze laudorio handi eta zintzoak

jasoko dituen Parmenonek! Alde batera utziko diat eragozpen, kostu eta
esfortzurik gabe lortu diodala maite duen dontzeilaren maitasun zail eta neketsua;
gainera, kortesana zeken bati kendu zioat. Horrez gain, uste diat sari handiena 930
merezi duen garaipena honakoa dela: mutila kortesanen izaera eta dohaiez
ohartzea lortu nian, horrela, behin ezagututa, gorroto ditzan. Emakume horiek,
kalean daudenean, bazirudik ez dagoela munduan ezer garbiagorik, ezer
txukunagorik, ezta dotoreagorik ere. Amorante batekin afaltzen dutenean,
milikeriaz jokatzen ditek. Beren zikinkeria ikusi beharko huke, beren kraka eta
miseria; ze zatar ibiltzen diren etxetik, bakarrik daudenean; zelan irensten duten
ogi beltza, bezperako saltsan bustitzen dutenean. Hori guztia ezagutzea mutil 940
gazteen salbazioa duk.

PITIAS.– Ala Polux, hitz eta ekintza horiengatik mendeku hartuko diat, kriminal
hori! Ez haiz guri burla egin eta gero zigorrik gabe joango! Jainkoak, babes
nazazue! Ze okerkeria itsusia! Zorigaiztokoa hi, Parmenon, gizatxar hori hona
ekarri dualako!

PARMENON.– (*Berekiko*) Zer gertatzen duk?

PITIAS.– (*Berekiko*) Pena ematen zidan. Kalera atera naun, gaixo hau, emango
omen dioten eskarmentu eredugarri hori ez ikusteko.

PARMENON.– (*Berekiko*) Ala Jupiter! Zer duk iskanbila hori? Galduta ote
nagok? Hurbilduko nauk. (*Pitiasi*) Zer gertatzen dun, Pitias? Zer dion? Nori
emango zioten eskarmentua?

PITIAS.– Hik galdetzen duk? Nola ausartzen haiz? Gu engainatzen ahalegintzen
hintzen bitartean, eunukoaren partez ekarri huen mutilari kalte handiak eragin 950
dizkiok.

PARMENON.– Zer? Zer gertatu dun? Kontatu.

PITIAS.– Kontatuko diat. Gaur Taisi oparitu dioten dontzeila, badakik hemengo
hiritarra dela eta haren neba familia nagusi bateko noblea?

PARMENON.– Ez nekinan.

PITIAS.– Ba hori duk aurkitu dutena. Zerri horrek bortxatu zian, eta haren nebak zitalkeria horren berri izan zuenean, oso bortizki...

PARMENON.– Zer egin zionan, ba?

PITIAS.– ...lehenengo, era penagarrian lotu zian.

PARMENON.– Zer? Lotu zinan?

PITIAS.– Hala duk, Taisek hori egin ez zezan eskatzen zioan arren.

PARMENON.– Zer dion?

PITIAS.– Orain adulteroei egiten dietenarekin²² mehatxatzen dik. Ez diat hori inoiz ikusi, ezta ikusi nahi ere.

PARMENON.– Ze atrebentziarekin saiatu dun horrelako gehiegikeria egiten?

PITIAS.– Zergatik esaten duk «horrelako»?

PARMENON.– Ez zain larregikeria iruditzen? Noiz ikusi dun norbait 960 adulterotzat jotzea, kortesana baten etxean?

PITIAS.– Ez zekiat.

PARMENON.– Jakin dezaan, errepikatuko dinat nire nagusiaren semea dela.

PITIAS.– Tira, mesedez! Hau al da...?

PARMENON.– Taisek ez dezala inolako indarkeriarik onartu! Gainera, zergatik ez naun ni neu sartzen?

PITIAS.– Kontuz egiten duanarekin, Parmenon. Balitekek ezertarako balio ez izatea eta heu izatea galtzaile, uste baititek istilu guzti hau hire errua dela.

PARMENON.– Orduan, zer egingo dinat, gaixo honek? Nondiko hasiko naun? Begira, hortik zetorren agurea; landa aldetik zetorren. Esango zionat edo ez zionat esango? Ala Herkules, esango zionat, liskarren batean sartuko naizela dakidan arren! Beharrezkoa dun norbaitek mutil gazte horri laguntzea.

²² Zikiratzeari buruz ari dira. Solonen legeen arabera, onartuta zegoen gizonezko adulteroei zigor hori ezartzea.

PITIAS.– Zentzuduna haiz. Ni barrura noak. Hi, kontaiok gertaturiko guztia 970 zehatz-mehatz.

BOSGARREN AGERRALDIA

Agurea eta Parmenon

AGUREA.– (*Berekiko*) Landetxea etxetik gertu egotearen abantaila duk ez naizela landaz nekatzen, ez eta hiriaz ere. Nekatzen hasten naizenean, lekuz aldatzen nauk. Baina, ez ote duk hori gure Parmenon? Zalantzarik gabe, bera duk. (*Parmenoni*) Noren zain hago ate horren aurren, Parmenon?

PARMENON.– Nor da gizon hori? Hara, begira! Pozten naiz ondo iritsi zarelako, jauna!

AGUREA.– Noren zain hago?

PARMENON.– (*Berekiko*) Nireak egin dik, mihia beldurrez korapilatzen zaidak!

AGUREA.– Aizak! Zer gertatzen duk? Zergatik hago dardarka? Ondo zoak dena? Kontaidak.

PARMENON.– Jauna, lehenengo, gauzak diren bezala epaitu ditzazun nahi dut: hemen gertatu dena ez da nire errua izan. 980

AGUREA.– Zer?

PARMENON.– Ondo egin duzu galdetzen. Lehenago kontatu behar nizun. Fedriak eunuko bat erosi zuen hari oparitzeko.

AGUREA.– Nori?

PARMENON.– Taisi.

AGUREA.– Erosi...? Nireak egin dik, ala Herkules! Zenbatean?

PARMENON.– Hogei minatan.

AGUREA.– Hau akabua duk.

PARMENON.– Eta gainera, Kerea lira-jotzaile batekin dago maiteminduta.

AGUREA.– Zer? Maiteminduta zagok? Ba ote zakik zer den kortesana bat? Hirira etorri duk? Zoritxar bat bestearen ondoren.

PARMENON.– Jauna, ez niri begiratu; ez du nik eskatu diodalako egin.

AGUREA.– Ez hitz egin gehiago heure buruaz; jainkoek bizia ematen bazidatek, 990
nik neuk hi... lapur hori... Baina lehenago, azaldu gertatutakoa, dena delakoa
izanda ere.

PARMENON.– Kerea Taisen etxera eraman dute, eunukoaren ordezt.

AGUREA.– Eunuko baten ordezt?

PARMENON.– Ba bai. Gero, han harrapatu dute eta adultero bat izango balitz bezala lotu dute.

AGUREA.– Nireak egin dik!

PARMENON.– Ze ausardia kortesana horiena!

AGUREA.– Ba ote duk kontatu ez didaan zoritxar edo kalterik?

PARMENON.– Hori da dena.

AGUREA.– Zeren zain nagok? Barrura noak.

PARMENON.– (*Berekiko*) Ez zagok zalantza izpirik ere: istilu handian sartuko nauk honengatik. Baina, egitera behartua izan nintzenez, behintzat pozten naik horiek ere egundokoa entzungo dutelako. Aspalditik zebilean agurea horiei lezio 1000 bat emateko aitzakia bila. Orain aurkitu dik.

SEIGARREN AGERRALDIA

Pitias eta Parmenon

PITIAS.– (*Berekiko*) Ala Polux, aspaldi ez zitaidanan hainbeste desiratzen nuen zerbait gertatzen; agure hori momenturik okerreanean etorri dun! Barre egin zezakeen bakarria izan nindunan, haren beldurra zein zen bainekinan.

PARMENON.– (*Berekiko*) Eta orain zer gertatzen duk?

PITIAS.– (*Berekiko*) Orain Parmenonekin elkartzeko aterako naun. Baina, mesedez, non zagon?

PARMENON.– (*Berekiko*) Hau nire bila zabilek.

PITIAS.– Hor zagon, ikusten dinat! Harengana hurbilduko naun.

PARMENON.– Zer gertatzen dun, ergel hori? Zeren bila habil? Zergatik egiten dun barre? Jarraituko dun?

PITIAS.– Hilko nauk, gaixo hau, neka-neka eginda nagok... hitaz barre egiteaz!

PARMENON.– Eta hori?

PITIAS.– Eta hik galdetzen didak? Ala Polux, inoiz ez diat pertsona hain ergelik ikusi! Ezin diat azaldu ze ondo pasa dugun hire kontura! Nik uste nian pertsona 1010 azkar eta trebea hintzela. Zer? Hain azkar sinetsi huen nik esandakoa? Ez ote zuan nahikoa hiretzat mutila zitalkeria hura egitera bultzatzea, haren aitaren aurrean salatu gabe? Zer uste duk sentitu zuela haren aitak, horrela jantzita ikusi zuenean? Zer gertatzen duk? Ez ote haiz ohartu hireak egin duela?

PARMENON.– Zer? Zer esan dun, madarikatu horrek? Gezurra esan dun? Eta gainera barre egiten dun? Polita iruditzen zain gutaz barre egitea, kriminal horri?

PITIAS.– Oso barregarria.

PARMENON.– Merezitakoa jaso gabe ateratzen bahaiz hemendik, zinez...

PITIAS.– Benetan?

PARMENON.– Buelatu egingo dinat, ala Herkules!

PITIAS.– Sinisten haut. Baina, Parmenon, balitekek hire mehatxuak beste egun 1020 baterako utzi behar izatea. Hi, ordea, oraintxe bertan urkatuko haute, mutil ergel hura haren bilaukeriengatik famatua egin dualako. Eta gainera, haren aitaren aurrean salatu duk! Biek emango diate eskarmentu ikaragarria.

PARMENON.– (*Berekiko*) Nireak egin dik!

PITIAS.– Hori duk hire zerbitzuengatik jasoko duana! Banoak.

PARMENON.– Nireak egin dik! Arratoi baten antzera, nire arrastoengatik harrapatu naitek!²³

ZAZPIGARREN AGERRALDIA

Gnaton, Trason eta Parmenon

GNATON.– Eta orain zer? Ze esperantzarekin edota ze planekin gatoz? Zer egitea daukazu pentsatuta, Trason?

TRASON.– Nik? Taisen aurrean amore eman eta esaten duena egin.

GNATON.– Nola?

TRASON.– Nola izango nauk ni Herkules baino gutxiago, Onfaleren morroia izan zenean?²⁴

GNATON.– Adibide ederra. (*Berekiko*) Burua zapatakadaka bigunduko balio...!

²³ Donatoren azalpenaren arabera, gauz harrapatzen dira arratoiak, beren zatengatik.

²⁴ Onfale Lidiako erregina zen, Anatolian. Herkules haren edertasunarekin liluratuta gelditu zen eta, ondorioz, haren aginduen menpe bukatu zuen. Onfalek bere begiradapean artilea iruten jarri zuen Herkules, eta gelditzen bazen, sandaliarekin jotzen zuen.

(*Entzuteko moduan*) Baina Taisen atea zarata egin du.

TRASON.– Nireak egin dik! Baina, ze kalamitate duk hau? (*Kerea ikusirik*) Ez nian pertsona hau inoiz ikusi? Zergatik salto eta presa horiek? 1030

ZORTZIGARREN AGERRALDIA

Kerea, Parmenon, Gnaton eta Trason

KEREA.– (*Berekiko*) Adiskideok! Nor zagok gaur munduan ni baino zorionekoagorik? Inor ez, ala Herkules! Jainkoek, hain denbora gutxian niretzat hainbeste onura ekarriz, beren botere guztia erakutsi ditek nirekin!

PARMENON.– (*Berekiko*) Eta hau zergatik zagok hain pozik?

KEREA.– Ene lagun Parmenon! Nire plazer guztien sustatzaile, inspiratzaile eta egile! Ba ote dakik ze poztasun handia daukadan barruan? Ba ote dakik Panfila hiritar bezala aitortua izan dela?

PARMENON.– Hori entzun dut.

KEREA.– Ba ote dakik harekin ezkon-hitza eman dudala?

PARMENON.– Ondo egina, Jainko guztien izenean!

GNATON.– (*Trasoni*) Entzun duzu honek esan duena?

KEREA.– Gainera, pozten nauk nire anaia Fedriaren maitasuna esku onetan ikusita. Etxe bakarra osatzen diagu orain: Taisek nire aitari eskaini ziok bere burua, eta gure babespe eta zaintzapean gelditu duk.

PARMENON.– Hortaz, Tais orain zure anaiaren esku gelditu da, guztiz? 1040

KEREA.– Hori duk.

PARMENON.– Poztasuna eragiteko beste arrazoi bat dago: soldadua kalera botako dute.

KEREA.– Hire kontu nire anaia honetaz enteratzea hainbat arinen, nonahi dagoela ere.

PARMENON.– Etxean dagoen ikustera noa.

TRASON.– (*Gnaton*, *ahopeka*) Gnaton, orain, zalantzan jartzen ote duk nireak egin duela betiko?

GNATON.– (*Trasoni*, *ahopeka*) Ez daukat zalantza izpirik ere.

KEREA.– (*Berekiko*) Nori eskainiko zioat nire lehenengo oroitzapena? Nori emango zizkioat laudoriorik handienak? Egin nuena egiteko aholkua eman zidanari, edo neure buruari, gauzatzera ausartzeagatik? Edo Zoria goratu behar diat, nire gidari izan zena, eta egun bakar batean hainbeste aukera eta hain onak eman zizkidana? Edo nire aitaren adeitasun eta bihozberatasuna? Ala Jupiter, irauraraz ezazu, arren, zorion hau!

BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

Fedria, Kerea, Trason eta Gnaton

FEDRIA.– (*Berekiko*) Babes nazazue, Jainkoak! Gauza harrigarriak kontatu zizkidak Parmenonek! Baina, non zagok nire anaia? 1050

KEREA.– Ondoan duk.

FEDRIA.– Pozten nauk!

KEREA.– Sinisten diat. Anaia, ez zagok inor hire maitasuna Taisek baino gehiago merezi duenik; hain izan duk onuragarria gure familiarentzat.

FEDRIA.– Hara, nire aurrean laudatuko didak?

TRASON.– (*Berekiko*) Nireak egin dik, zenbat eta itxaropen gutxiago eduki, gehiago maite diat! (*Gnaton*) Gnaton, mesedez, hi haiz nire itxaropen bakarra!

GNATON.– Zer nahi duzu nik egitea?

TRASON.– Moldatu hadi, nola edo ahala, erreguka edota diruarekin, ni Taisen etxeko txokoren batera sartu ahal izateko.

GNATON.– Zaila da.

TRASON.– Pixka bat tematzen bahaiz... ezagutzen haut. Lortzen baduk, eskatuidak nahi duan ordainsari edo oparia, nahi duana emango diat eta.

GNATON.– Bai?

TRASON.– Hala izango duk.

GNATON.– Lortzen badut, zure etxea, zu han egon nahiz ez, niretzat zabalik egoteko eskatzen dizut. Hortaz, nahiz eta gonbidatua ez izan, beti edukiko dut leku bat han.

TRASON.– Horrela izango dela bermatzen diat.

1060

GNATON.– (*Berekiko*) Ekin behar diat!

FEDRIA.– Nor entzuten diat hortik? Hara, Trason!

TRASON.– Agur zuri.

FEDRIA.– Baliteke zuk hemen gertatutakoa ez jakitea.

TRASON.– Badakit.

FEDRIA.– Orduan, nolatan ikusten zaitut auzo honetan?

TRASON.– Zuetaz fidatzen...

FEDRIA.– Ba ote dakizu zenbat fida zaitezkeen? Soldadu, gauza bat esango dizut: hemendik aurrera plaza honetan zurekin topo egiten badut, «halakoren bila nabil» edo «hemendik nentorren» esan arren, akatuko zaitut.

GNATON.– Aizu, hori ez dago ondo!

FEDRIA.– Esanda dago.

TRASON.– Ez nekien hain harropuzak zinetenik.

FEDRIA.– Horrelakoa naiz.

GNATON.– Lehenago, entzun nazazue laburki: hitz egin ondoren, egizue egin beharrekoa.

KEREA.– Entzungo diagu.

GNATON.– Zu, aldendu pixka bat hemendik, Trason. (*Fedriari eta Kereari*)
Hasteko, nire indar guztiekin nahi dut zuek sinistea egiten dudan oro nire 1070
interesengatik egiten dudala; baina zuei ere berdin mesede egiten badizue,
ergelkeria bat izango litzatekeela ez egitea.

FEDRIA.– Zer esan nahi duk?

GNATON.– Uste dut soldadua leihakide bezala onartu behar duzuela.

FEDRIA.– Zer? Onartu?

GNATON.– Ala Herkules, Fedria, hausnartu pixka bat. Zu, Fedria, oso gustura
bizi zara, egia da oso pozik bizi zarela, baina gutxi daukazu eskaintzeko. Gainera,
Taisek asko jaso behar du. Zure maitasuna gasturik gabe finantziatu ahal izateko,
ez dago zuretzat Trason baino pertsona gauzaez eta aproposagorik. Hasteko,
emateko asko dauka, eta ez dago bera baino eskuzabalagorik. Horrez gain, nahiko
ergela, geldoa eta alferra da; zurrunga egiten du gau eta egun. Beraz, ez kezkatu, 1080
ez da harekin maiteminduko den emakumerik, oso erraz libratuko zara berataz.

KEREA.– (*Fedriari*) Zer egingo diagu?

GNATON.– Gainera, oinarrizkotzat hartzen dudan zerbait dago: inork ez du hain
ondo eta hainbesteko oparotasunez jatera gonbidatzen.

KEREA.– (*Fedriari*) Harrigarria lukek gizon hau nahitaezkoa ez izatea.

FEDRIA.– Berdin pentsatzen diat.

GNATON.– Ondo egiten duzue. Fabore bat baino ez dizuet eskatzen: zuen
taldean har nazazuela. Aspaldi nabil arroka horri bueltak ematen²⁵.

²⁵ Sisiforen mitoari buruz ari da, Donatoren arabera. Nolanahi ere, Gnatonen esaldiak irain eta burla kutsua dauka.

FEDRIA.– Hartuko haugu.

KEREA.– Oso gustura gainera.

GNATON.– Ordainetan, Fedria eta Kerea, haretaz barre egiteko eta txiki-txiki egiteko gonbidapena luzatzen dizuet.

KEREA.– Ados gaudek akordioarekin.

GNATON.– Trason, nahi duzunean, hurbildu zaitez.

TRASON.– Zer egingo diagu, arren?

GNATON.– Zer? Mutil gazte hauek ez zintuzten ezagutzen, baina nolakoa zaren azaldu bezain laster, eta zure balentria eta bertuteak merezi duten bezala laudatu 1090 ondoren, dena lortu dut.

TRASON.– Ondo egin duk eta oso eskerdun nagok. Inoiz ez nauk inon egon mundu guztiaren maitasuna irabazi gabe.

GNATON.– Ez ote nizuen esan xalotasun atenastarra zegoela harengan?

FEDRIA.– Ez duk ezer handizkatu. Hator hona.

KANTOREA.– Zuei bejondeizuela eta egin txalo.

4. Bibliografia

Alberdi, X., 1993. “Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak”, *Fontes Linguae Vasconum*, 64, 425-442.

Alberdi, X., 1994. “Hitanoa non eta nork erabiltzen duen”, *Euskera*, XXXIX, 983-993.

Euskaltzaindia, 1994. *14. araua. Adizki alokutiboak (hikako moldea)*. Online: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/eaeb/arauak/Araua_0014.pdf> [Azken kontsulta-data: 2020-05-28].

Legorburu, O., 2018. *Ikerketa lana: Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak*. Euskal Herriko Unibertsitatea [Master Amaierako lana]. Online: <<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/29063/ONINTZA%20LEGORBURU%20LARR EA%20MAL%20%282%29.pdf?sequence=2&isAllowed=y>> [Azken kontsulta-data: 2020-05-28].

Eunukoaren itzulpenak

Barsby, J., 2001. *Terence: The Woman of Andros, The Self-Tormentor, The Eunuch*. Boston: Harvard University Press.

Del Col, J. J., 2008. *Terencio: El Eunuco*. Bahía Blanca: Instituto superior Juan XXIII.

Fontana, G., 2008. *Terencio. Obras: La Andriana, El Atormentado, El Eunuco, Formión, La Suegra, Los Hermanos*, Madril: Gredos.

Pociña, A. & López, A., 2009. *Eunuchus/El Eunuco*, Bartzelona: Bosch.

Rubio, L., 1991. *Terencio: Comedias. La Andriana. El Eunuco. I*. Madril: Alma Mater.